# ¡VAMOS ANDANDO AL COLE!



**El Camino Escolar** es una iniciativa cuyo objetivo es promover y facilitar que los niños y niñas vayan a la escuela a pie y de manera autónoma, es decir sin ir acompañados de adultos por una ruta segura.

Esto que hasta hace no muchos años, se hacía de forma natural, en los últimos se ha convertido en el modo de movilidad de unos pocos, provocando en la población infantil carencias que cada día se hacen más notables: dificultad para reconocer el entorno, para moverse con autonomía, sedentarismo, falta de relación con otros niños en la calle, etc.. Simultáneamente este cambio se une como una más, a las causas del aumento de la circulación en nuestras carreteras.



El Camino Escolar, intenta garantizar que los escolares hagan el camino hacia la escuela **a pie y de forma autónoma**. Ello supone, por un lado que los niños y niñas del barrio tienen la posibilidad de socializarse y de ir asumiendo cotas de autonomía en un periodo crucial de su formación como personas responsables.



Todos los logros que consigamos, contribuirán a hacer de nuestro barrio, un lugar más habitable, sabiendo que **"un barrio más seguro para los niños lo es por añadidura también para los adultos"**.

Con esta idea de fondo, realizamos trabajo de campo con ellos, analizando los problemas fundamentales del entorno del centro escolar, desde el punto de vista de los accesos, la seguridad, o nuestros hábitos diarios en lo que a moverse se refiere.




Son tres las actividades fundamentales que se llevan a cabo:

**¡Observa la calle e imagina la ciudad!**

**¡Atento, viene coche!**

**¡Vamos todos andando al cole!**



Eskolako bidea
Camino escolar

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

# GOAZEN OINEZ ESKOLARA!

Eskolako bidea
Camino escolar



# GOAZEN OINEZ ESKOLARA!



"Eskolako Bidea" izeneko ekimenaren helburua, neskato-mutikoak eskolara oinez eta beren kasa hau da, helduek lagundu beharrik gabe bide seguru batetik joateko modua sustatu eta erraztea da.

Orain dela ez hainbeste urte normal-normal egiten zen gauza, gutxi batzuen mugitzeko modu bihurtu da gaur egun, eta horren ondorioz, gero eta nabarmenagoak diren gabeziak edo akatsak sortzen ari dira haurren artean: inguruneari antzemateko eta norbere kasa mugitzeko zailtasuna, sedentarismoa, kaleko elkarbizitza falta beste umeekin, etab. Eta aldaketa hori ez ezik, beste bat ere etorri zaigu gaur egun: gure errepideetako zirkulazioa ikaragarri gehitzea.



"Eskolako Bidea" ekimenarekin lortu nahi dena da gure eskola-umeei ikastetxeko bidea **oinez eta beren kasa** egiteko modua bermatzea. Eta horrek, besteak beste, esan nahi du gure auzoko neskato-mutikoek aukera izan behar dutela, gizaki arduratsu gisa prestatzeko duten garai guztiz garrantzitsu batean, gizarte-bizitza egiteko eta gero eta autonomia-maila handiagoa lortzeko.



Iristen ditugun lorpen guztiek gure auzoa leku "bizigarriago" bat egiten lagunduko dute, jakinik betiere **"haurrentzat seguruagoa den auzo bat, halaxe izango dela helduentzat ere"**.

Oinarrian ideia hori izanez, bada, haurrekin landa-lana egiten saiatzen gara, eskolaren ingurunean ematen diren funtsezko arazoak aztertuz, dela bertarako irispideei, dela segurtasunari, edota mugitzeko ditugun eguneroko ohiturei begira.




Honako hiru jarduera hauek lantzen dira funtsean:

**Begira ezazu kalea eta irudikatu hiria!**

**Erne, auto bat dator!**

**Goazen denok oinez eskolara!**



Eskolako bidea
Camino escolar

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

# ¡VAMOS ANDANDO AL COLE!

Eskolako bidea
Camino escolar

